

XABIER LETEREN POETIKA: ALDAEREN AZTERKETA ETA BILAKABIDEAREN IRAKURKETA BAT

Tesiaren egilea: Alexander Gurrutxaga Muxika

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saila

Tesi-zuzendaria: Lourdes Otaegi Imaz

Tesiaren laburpena:

Xabier Leteren figurak eta sorkuntza-lanak itzal luzea dute euskaldunongan. Alabaina, esparru akademikoan, nahiz eta azterketa zenbait egon, haren poesiagintza eta kantagintza ikerketa sakonagoen beharrean zeuden. Behar horri erantzun nahi izan zion, hein batean bederen, doktore-tesi honek.

Ikerketaren helburua Xabier Leteren pentsamendu poetikoan murgildu eta horren bilakabidea deskribatzea zen, 1965etik 2008ra bitartean Leteren obrak bizi izan zuen garapena aztertuz. Horretarako, literatura konparatuaren ohiko me-kanismoez gain —testu-kritika, testuinguruaren azterketa, etab.—, obra poetikoen ikerketarako bereziki interesgarria den metodologia kritiko bat hobetsi zen, zeina baita aldaeren kritika. Metodo horrek erreminta eraginkorrek eskaintzen ditu poema eta abestien bertsio argitaratuak —aldaerak— euren artean konparatu eta irakurketa kritikoak proposatzeko. Are gehiago, aldaeren azterketak, diakronikoki gauzatzen den neurrian, ibilbide poetiko baten lekuko testual konkretuak azaleratzen ditu.

Aipaturiko oinarri teoriko-metodologikoarekin, Leteren obran bertsio bat baino gehiago dituzten piezak —poema zein abestiak— alderatu zituen ikerketak, eta kasuan kasuko aldaketak lekukotu eta aztertu. Aldaera horien ibilbideari jarraituz, Leteren pentsamendu poetikoaren ezaugarri nagusiak identifikatzeaz gain, posible izan zen poetika horren garapena deskribatzea. Horrela, identifikatu ahal izan ziren poetaren kezka eta gai nagusiak, motiboak eta eraginak, testuarteko harremanak, etab.

Ondorioz, eta emaitza sintetiko gisa, hiru arotako irakurketa kritiko bat planteatzen du tesiak, Leteren gaztaroko obra (1965-1978), krisi-garaia (1978-1991) eta irteera (1991-2008) bereiziz. Aro bakoitza ezaugarri eta joera nagusi zenbaitek ezaugarritzen dute, eta ikerketak horietan sakontzen du, Leteren pentsamendu poetikoak aro bakoitzean izan zituen ñabardurak aztertuz.

Orokortuz, ikerketa honetan azaleratu da, 40 urteko ibilbidean, zer-nolako harremana izan zuten Leteren pausoek Euskal Herriaren pausoekin: frankismoaren azken urteetan Hego Euskal Herriak bizi izan zuen loralditik trantsizioko krisira; eta,

handik, 80ko hamarkadaren amaieratik aurrera, ahots berri baten bilaketara. Esan ahal izango litzateke Letek hitzak jarri zizkiela euskal herritarren bizipenei, mende erdiko bizi-aroetan harekin parez pare ibiliz.

Amaitzeko, doktoretza-lan honi loturiko aipamen bi egin behar dira. Batetik, azpimarratzekoa da Lourdes Iriondo eta Xabier Leteren funtsaren katalogazio-eta azterketa-lana, tesiaren autoreak berak egina, Lourdes Otaegi irakaslearen laguntzarekin —egun, Koldo Mitxelena Kulturunean dago artxiboa—. Material horien azterketak informazio-iturri aparta ekarri zuen doktoretzari begira. Bestetik, behin tesia irakurrita eta egindako ikerketaren emaitza gisa, *Xabier Lete, aberriaren poeta kantaria* (Alberdania, 2020) saiakera argitaratu zuen tesiaren autoreak, baita Leteren obraren alderdi askotarikoak jorratu dituzten hainbat artikulu ere, aldizkari eta liburu espezializatuetan.